

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko irailaren 29ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Araugintzako foru dekretuak**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Araugintzako foru dekretua, irailaren 29koa. Onestea Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauaren testu bategina.

Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2021 Araugintzako foru dekretua, irailaren 29koa. Onestea Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren foru arauaren testu bategina.

Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2021 Araugintzako foru dekretua, irailaren 29koa. Onestea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren foru arauaren testu bategina.

Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2021 Araugintzako foru dekretua, irailaren 29koa. Onestea Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren foru arauaren testu bategina.

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2021 Araugintzako foru dekretua, irailaren 29koa. Onestea Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren foru arauaren testu bategina.

Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2021 Araugintzako foru dekretua, irailaren 29koa. Onestea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren foru arauaren testu bategina.

– **Foru Dekretuak:**

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 46/2021 Foru Dekretua, irailaren 29koa. Indarrrik gabe uztea Kontseiluaren uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren 102. artikulua aplikazioa aldi baterako etetea.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 47/2021 Foru Dekretua, irailaren 29koa. Indarrrik gabe uztea Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 24ko 59/2007 Foru Dekretuaren 58.3 artikulua aplikazioa aldi baterako etetea.

– **Erabakiak:**

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 566/2021 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko langileentzako ALET Administrazioako Langileen Euskarazko Trebakuntza programarako kontratua luzatzeari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 567/2021 Erabakia, irailaren 29koa. Onestea gastuen egoe-rako "Azterlanak eta proiektuak" partidan 20/2021 konpromiso kreditua sortzeko espedientea, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 568/2021 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea, 25/2021 konpromiso kreditua 2021eko urterotik 2022ko urterokora birbanatzeko espedienteari, 11.250,00 euroko zenbatekoaz, gastuen egoerako "Industria kulturalak eta sortzaileak 2020. AUKK" partidan, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailak hala eskatuta.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 569/2021 Erabakia, irailaren 29koa. Onespena ematea Kontseiluaren urriaren 6ko 449/2020 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa baiesteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 570/2021 Erabakia, irailaren 29koa. Onestea 341 zenbakiko partzuergoaren eraketa Urizaharreko Administrazio Batzarrarekin, Urizaharreko udalerriko 1. poligonoko 99. lurzatiko A eta B azpilurzatietan.